

Kaoalaren urtebetetzea da,
eta primeran pasatzen ari dira denak.
Baina bada komuna oso ondo
erabiltzen ez dakienik ere...

Lortuko du Elefantekek pixari
eustea partida amaitu arte? Tukan komunetik
pasa ote da etxetik irten aurretik?

*Txikienek komunera joaten ikas dezaten
zenbait trikimailu dibertigarri.*



ISBN: 978-84-10074-53-8 www.nubeocho.com



Kaka, putza, pixa. Komunera joateko gidaliburua




Susanna Isern

Mar Ferrero



Komunera joateko gidaliburua

Susanna Isern Mar Ferrero



Kaka Putza Pixa

Komunera joateko gidaliburua

Susanna Isern Mar Ferrero




nubeOCHO



Kaka, putza, pixa. Komunera joateko gidaliburua
Somos8 bilduma

© testuarena: Susanna Isern, 2024
© irudiena: Mar Ferrero, 2024
© argitalpenarena: NubeOcho, 2024
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2024
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Caca, pedo, pis. Manual para ir al baño*

Lehen argitaraldia: Apirila, 2024
ISBN: 978-84-10074-53-8
Gordailu Legala: M-1380-2024

Espanian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.

Gaur Koalaren urtebetetzea da, eta ospatzeko sekulako festa antolatu du bere etxean.

Koala Aitak askari goxo-goxoa prestatu du.

Festak oso dibertigarriak izaten dira. Lagun guztiak elkartzen dira eta jolasak, musika, janaria eta freskagarriak ezin dira falta.

Baina, batzuetan, zenbait behar sortzen dira... eta ondo dator komunera joateko zenbait aholku eskura izatea bazterrak nahasi aurretik.



Bostetan gonbidatuak iristen hasi dira.

—Zorionak, Koala! —esan diote denek.

Baina Tukan arrapaladan sartu da “kaixo” ere esan gabe,
eta zuzenean komunera zuzendu da.

—Zer gertatzen zaio? —galdegin du Koalak.

—Tukanek izugarrizko pixagura dauka —erantzun du Jirafak.

—Hara, etxetik atera aurretik egin behar zuen.



Gogoratu etxetik
atera aurretik
komunetik pasatzeaz,
nahiz momentu horretan
gogorik ez izan.

Festa hasi da eta primeran pasatzen ari dira denak. Hala ere, Elefante arraro samar dago, eta hankak dantzan darabiltza kartetan jolasten duen bitartean.

—Pixagura duzu? —galdetu dio Satitsuk.

—Pixka bat soilik —erantzun du Elefante—. Lasai itxaron dezaket partida amaitu arte.

Bost minuturen buruan, Elefante salto batez altxa da aulkitik.

—Azkar, azkar, ihes egingo dit! —oihukatu du komunera bidean korrika doala.

Beranduegi da baina. Ai ene! Elefante ez da garaiz iritsi.



Zaku-lasterketaren ostean Urtxintxa hain da egarri,
non bi baso ur edan dituen bata bestearen atzetik.
Handik gutxira, pixagura handia sentitu du.

—Non dago komuna? —galdetu du.

—Eskuinera —azaldu dio Koala Aitak.

Urtxintxak ziztu bizian sartu nahi du komunera,
eta pentsatu ere egin gabe... atea ireki du! Baina barruan
sorpresa batekin egin du topo...

—Barkatu, ez nekien norbait zegoenik.

Ez ahaztu
komunera sartu aurretik
atea jotzeaz.



Urtxintxaren sarrera bortitzak ezusteko ederra eman dio Katuri.

—E, zu! Itxi atea! —oihukatu du.

Hain jarri da urduri, ezen despistatu egin baiten apuntatzeko garaian, eta komunontzian eta lurrean egin du pixa.

—Hau da hau desmasia... —xuxurlatu du Katuk—. Paper zati batekin garbituko dut.



Askaltzen ari direla, Dortokak kaka egiteko gogo handia sentitu du. Komunera bidean, Rubik kubo bat topatu du.

—Zein dibertigarria dirudien! Komunean nagoen bitartean probatuko dut.

Dortoka kuboarekin jolasean dabilela, ez du ebaztea lortzen eta minutu andana igaro da jada. Ezin du susmatu ere egin ate aurrean jazotzen ari dena!



Saiatu komunean behar baino denbora gehiago ez ematen, beste norbait itxaroten egon baitaiteke.

